

142. ALDIZKARIA - 2012ko uztailaren 19a

Odietako Udalaren datuak babesteko udal ordenantza. Behin betiko onespena

Odietako Udalak, 2012ko martxoaren 14an egin osoko bilkuran, Udalbatzako kideen legezko gehiengo osoa zuela, hasiera batean onetsi zuen Odietako Udalaren datuak babesteko udal ordenantza.

Hasierako onespenaren iragarkia 2012ko 75. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, apirilaren 20an, eta jendaurrean egoteko epea iraganik inork alegaziorik aurkeztu gabe, Odietako Udalak, 2012ko ekainaren 13an egin osoko bilkura arruntean, Udalbatzako kideen legezko gehiengo osoa edukita, behin betiko onetsi zuen ordenantza hori.

Horrenbertzez, testu osoa argitaratuko da, bidezko ondorioak izan ditzan, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325 eta 326. artikuluetan xedatuari jarraikiz.

Erripan (Odietako), 2012ko ekainaren 13an.-Alkatea, Alberto Urdaniz Elizondo.

DATUAK BABESTEARI BURUZKO ARAUDIA ODIETAKO UDALEAN APLIKATZEA

ORDENANTZA, ODIETAKO UDALEAN DATU PERTSONALEN FITXATEGIAK SORTZEKO

Datuak babestearen gainean Europar Batasunean dagoen legeria Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/99 Lege Organikoaren bitartez ekarri da gure herrialdera (DBLO). Horrek indarririk gabe utzi du aurrekoa, erran nahi baita, Datu pertsonalen tratamendu automatizatua arautzen duen urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoa.

Delako DBLOak xedea du pertsona fisikoen askatasun publikoak eta oinarrizko eskubideak eta bereziki haien ohorea eta intimitate pertsonala eta familiarra bermatu eta babestea datu pertsonalen tratamenduaren arloan. Euskarri fisikoan erregistraturik egoteagatik tratamendua izan dezaketen datu pertsonalei aplikatzekoa da, baita datu horiekin geroago sektore publiko nahiz pribatuek egiten ahal duten erabilera mota guztiei ere.

Gisa honetara, datu pertsonalak bildu, biltegitatu edo tratatzen dituzten pertsona, enpresa edo entitate guztiek bete beharko dituzte halako betebeharrak eta neurri batzuk. Horiek DBLOan arauturik daude, baita lege organikoa garatzeko erregelamendua onesten duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuan ere.

Alde horretatik, DBLOaren 9. artikulua ezartzen du fitxategiaren edo tratamenduen arduradunek duten betebeharrak segurtasun neurri tekniko eta antolamenduzko guztiak hartzeko, "datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta haiek aldatu, galdu edo baimenik gabe tratatu eta

eskuratzea eragozteko, kontuan harturik teknologiaren egoera, bilduriko datuen nolakoa eta izan ditzaketen arriskuak, bai gizakien ekintzen aldetik, bai ingurunearen aldetik ere".

DBLOaren 20. artikulua ezartzen duenez, administrazio publikoen fitxategiak sortu, aldatu eta kentzen ahalko dira xedapen orokor baten bidez bakarrik, Estatuko Aldizkari Ofizialean edo kasuan kasuko egunkari ofizialean argitaratu ondoan.

Fitxategiak sortu edo aldatzeko xedapenetan alderdi hauek zehaztu beharko dira:

- Fitxategiaren helburua eta eman nahi zaizkion erabilerak.
- Datuen iturri diren pertsona edo taldeak edo datu horiek ematera beharturik daudenak.
- Datu pertsonalak biltzeko prozedura.
- Fitxategiaren oinarrizko egitura, eta hartan sarturik dauden datu pertsonalen deskribapena.
- Datu pertsonalen lagapena eta, halakorik bada, hirugarren herriendako aurreikusten diren datu eskualdaketak.
- Fitxategiaren ardura duten administrazioen organoak.
- Zer zerbitzu edo unitatetan erabil daitezkeen sartzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta kontra egiteko eskubideak.
- Eskatzekoak diren segurtasun neurriak, oinarrizko mailakoak, maila ertainekoak edo handikoak direla.

Fitxategiak kentzeko ematen diren xedapenetan fitxategien xedea ezarriko da, eta nola suntsitu behar diren adieraziko da, hori xedatuz gero.

Toki entitatea den aldetik manaturik dituen eginkizunak betetzeko behar diren datu pertsonalen fitxategien ardura du Odietako Udalak.

Fitxategi horiek babesaren arloko legeriara egokitu beharrak eta horiek sortzeko xedapen orokor bat eman beharrak ekarri dute ondotik ematen den ordenantzaren onespina.

Lehenengoa.-Fitxategi hauek sortzea, deskripzio eta ezaugarri hauekin:

1.-Katastroa

-Xede eta erabilera aurreikusiak: katastroa mantentzea: kontsultak egitea eta ziurtagiriak luzatzea. Landalurreko eta hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioaren diru-bilketa.

-Datuak nondik eta nola biltzen diren: datuak interesdunek edo haien legezko ordezkariak ematen dituzte, udal bulegoetan eskriturak entregatzean, edo notariotzek, eskrituren zerrenden berri ematean.

-Norbanako edo talde ukituak: Katastroko ondasunen titularrak.

-Fitxategiaren oinarrizko egitura:

- Identifikazio datuak: izen-deiturak, helbidea, IFZ.
- Inguruabar sozialen datuak.
- Datu ekonomikoak, finantzarioak eta aseguruena.

-Tratamendurako erabilitako sistema: automatizatua, udal kudeaketaren aplikazioa. paperezko euskarrian.

-Datuen komunikazioa: bidezko interesa dutenei (Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legearen 8.2 artikulua) eta hainbat pertsona eta entitateri, 12/2006 Legearen 43 eta 44. artikuluan araututakoaren arabera.

-Organo arduraduna: Odietako Udala.

-Zer zerbitzutan erabil daitezkeen sartzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta kontra egiteko eskubideak: Odietako Udala.

-Segurtasun maila: ertaina.

2.-Zirkulazioa

-Xede eta erabilera aurreikusiak: ibilgailuen errolda mantentzeko lanak eta zirkulazio zergaren diru-bilketa.

-Datuak nondik eta nola biltzen diren: datuak etortzen dira Trafiko Zuzendaritza Nagusitik, paperezko euskarrien bidez, eta gestoretatik, posta arruntaren bidez.

-Norbanako edo talde ukituak: udalerrian erregistratutako ibilgailuen titularrak.

-Fitxategiaren oinarritzko egitura:

- Identifikazio datuak: izen-deiturak, helbidea, IFZ.
- Datu ekonomikoak, finantzarioak eta aseguruena.

-Tratamendurako erabilitako sistema: automatizatua.

-Datuen komunikazioa: Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei, Gizarte Segurantzako organismoei, eta epaile eta epaitegiei, aldeztatik eskatuta.

-Organo arduraduna: Odietako Udala.

-Zer zerbitzutan erabil daitezkeen sartzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta kontra egiteko eskubideak: Odietako Udala.

-Segurtasun maila: ertaina.

3.-Kontabilitate publikoa

-Xede eta erabilera aurreikusiak: kontabilitate publikoa eta aurrekontuena eramatea.

-Datuak nondik eta nola biltzen diren: interesdunek berek emanda, kontabilitateko dokumentazioaren bidez.

-Norbanako edo talde ukituak: kontabilitate ekitaldian Udalarekin harremana duten hirugarrenak.

-Fitxategiaren oinarrizko egitura:

- Identifikazio datuak: izen-deiturak, helbidea, IFZ.
- Datu ekonomikoak, finantzarioak eta aseguruena.

-Tratamendurako erabilitako sistema: mistoa, udal kudeaketaren aplikazioaren bidez eta paperean.

-Datuen komunikazioa: Nafarroako Gobernuari (Toki Administrazio Departamentua), Comptos Ganberari, bidezko interesa dutenei.

-Organo arduraduna: Odietako Udala.

-Zer zerbitzutan erabil daitezkeen sartzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta kontra egiteko eskubideak: Odietako Udala.

-Segurtasun maila: Oinarrizkoa.

4.-JEZ

-Xede eta erabilera aurreikusiak: jarduera ekonomikoen gaineko zerga kudeatzea.

-Datuak nondik eta nola biltzen diren: interesdunek berek emanda, udal bulegoetan eskaera egitean.

-Norbanako edo talde ukituak: udalerrian lanbide edo enpresa jarduerak dituzten pertsonak.

-Fitxategiaren oinarrizko egitura:

- Identifikazio datuak: izen-deiturak, helbidea, IFZ, telefonoa.
- Datu ekonomikoak, finantzarioak eta aseguruena.
- Merkataritza arloko datuak.
- Bertzelako datuak: alta edo bajaren data.

-Tratamendurako erabilitako sistema: automatizatua, Nafarroako Gobernuaren bere gisako aplikazioa.

-Datuen komunikazioa: Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuari.

-Organo arduraduna: Odietako Udala.

-Zer zerbitzutan erabil daitezkeen sartzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta kontra egiteko eskubideak: Odietako Udala.

-Segurtasun maila: ertaina.

5.-Lizentziak, baimenak eta kontzesioak

-Xede eta erabilera aurreikusiak: obra lizentziak, irekitzeko lizentziak edo jarduerarako lizentziak eta administrazioaren bertze baimen eta kontzesio batzuk kudeatu eta kontrolatzea.

-Datuak nondik eta nola biltzen diren: interesdunek berek edo haien ordezkariak ematen dituzte, udal bulegoetan eskaera idatziz egitean.

-Norbanako edo talde ukituak: lizentzia, baimen eta kontzesioen eskatzaileak.

-Fitxategiaren oinarritzko egitura:

- Identifikazio datuak: izen-deiturak, helbidea, IFZ, telefonoa, sinadura.
- Inguruabar sozialen datuak.
- Merkataritza arloko datuak.

-Tratamendurako erabilitako sistema: paperean.

-Datuen komunikazioa: Foru Komunitateko bertze organo batzuei.

-Organo arduraduna: Odietako Udala.

-Zer zerbitzutan erabil daitezkeen sartzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta kontra egiteko eskubideak: Odietako Udala.

-Segurtasun maila: Oinarritzkoa.

6.-Biztanleen errolda

-Xede eta erabilera aurreikusiak: biztanleen udal erroldaren kudeaketa. Ziurtagiriak. Estatistika publikoaren eginkizuna.

-Datuak nondik eta nola biltzen diren: datuak interesdunek edo haien legezko ordezkariak ematen dituzte, udal bulegoetan, erroldatzea eskatzean.

-Norbanako edo talde ukituak: Odietako bizilaguna izatea.

-Fitxategiaren oinarritzko egitura:

- Identifikazio datuak: izen-deiturak, helbidea, IFZ, egoitza-txartela, pasaporteak, telefonoa, sinadura.
- Ezaugarri pertsonalen datuak.
- Ikasketa eta lanbide datuak.

-Tratamendurako erabilitako sistema: mistoa, udal kudeaketaren aplikazioaren bidez eta paperean.

-Datuen komunikazioa: Estatistikako Institutu Nazionalari, toki administrazioko bertze organo batzuei, segurtasun indar eta kidegoei.

-Organo arduraduna: Odietako Udala.

-Zer zerbitzutan erabil daitezkeen sartzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta kontra egiteko eskubideak: Odietako Udala.

-Segurtasun maila: Oinarritzkoa.

7.-Gainbalioak

-Xede eta erabilera aurreikusiak: hirilurren balio igoeraren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren kudeaketa eta kontrola.

-Datuak nondik eta nola biltzen diren: interesdunek berek edo notariotzek emanda.

-Norbanako edo talde ukituak: zerga hau ordaintzera behartuta daudenak.

-Fitxategiaren oinarrizko egitura:

- Identifikazio datuak: izen-deiturak, helbidea, IFZ, zer gisa diharduen.
- Datu ekonomikoak, finantzarioak eta aseguruena.

-Tratamendurako erabilitako sistema: paperean eta Udalaren kudeaketa aplikatuta.

-Datuen komunikazioa: Ez dago aurreikusia.

-Organo arduraduna: Odietako Udala.

-Zer zerbitzutan erabil daitezkeen sartzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta kontra egiteko eskubideak: Odietako Udala.

-Segurtasun maila: ertaina.

8.-Langileak

-Xede eta erabilera aurreikusiak: Udaleko langileen kudeaketa: nominak, gizarte aseguruak, kontratazioa, laneko arriskuen prebentzioa eta osasunaren zaintza.

-Datuak nondik eta nola biltzen diren: intesdunek berek ematen dituzte lan-kontratua sinatzean eta lan-harremanerako behar den dokumentazioa ematean.

-Norbanako edo talde ukituak: Odietako Udaleko enpleguak.

-Fitxategiaren oinarrizko egitura:

- Identifikazio datuak: izen-deiturak, helbidea, IFZ, telefonoa, Gizarte Segurantzako zenbakia, sinadura.
- Datu ekonomikoak, finantzarioak eta aseguruena.
- Osasun arloko datuak.
- Ezaugarri pertsonalen datuak.
- Enpleguaren xehetasunen gaineko datuak.

-Tratamendurako erabilitako sistema: mistoa da, automatizatua tratamenduaz arduratzen diren hirugarrenen aldetik, eta paperean, Udalaren aldetik, alderdien arteko lan-harremanak sorrarazten duen dokumentazio guztia erregistratzen duelako.

-Datuen komunikazioa: Gizarte Segurantzako erakundeei, ogasun publikoari eta zerga administrazioari.

-Organo arduraduna: Odietako Udala.

-Zer zerbitzutan erabil daitezkeen sartzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta kontra egiteko eskubideak: Odietako Udala.

-Segurtasun maila: Oinarrizkoa.

9.-Animalia arriskutsuen erregistroa

-Xede eta erabilera aurreikusiak: 50/1999 Legeak Udalei ezartzen dizkien betebeharrak betetzea: arriskutsuak izan daitezkeen animalien jabe edo edukitzaileentzako lizentziak ematea eta erregistro eguneratua mantentzea.

-Datuak nondik eta nola biltzen diren: interesdunek berek emanda, datuak ematen baitituzte behar den lizentzia eskatzean.

-Norbanako edo talde ukituak: arriskutsutzat jotzen diren animalien jabe edo edukitzaileak.

-Fitxategiaren oinarrizko egitura:

- Identifikazio datuak: izen-deiturak, helbidea, NANA, sinadura, telefonoa, irudia, sinadura.
- Ezaugarri pertsonalen datuak.
- Osasun arloko datuak: gaitasun agiria.
- Datu ekonomikoak, finantzarioak eta aseguruena.

-Tratamendurako erabilitako sistema: paperezko euskarrian.

-Datuen komunikazioa: segurtasun indar eta kidegoei eta epaile eta epaitegiei.

-Organo arduraduna: Odietako Udala.

-Zer zerbitzutan erabil daitezkeen sartzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta kontra egiteko eskubideak: Odietako Udala.

-Segurtasun maila: Oinarrizkoa.

10.-Sarrera-irteeren erregistroa

-Xede eta erabilera aurreikusiak: agirien sarrera-irteeren erregistroaz arduratzea.

-Datuak nondik eta nola biltzen diren: datuak interesdunek edo haien legezko ordezkariak ematen dituzte, edo administrazio publikoek edo bertze entitate batzuek, bai udal bulegoetan beretan, posta arruntaren bidez edo bertzela igorrita.

-Norbanako edo talde ukituak: Udalarengana idatziz jotzen dutenak eta komunikazio ofizialen hartzaileak.

-Fitxategiaren oinarrizko egitura:

- Identifikazio datuak: izen-deiturak eta helbidea.
- Bertzelako datuak: data.

-Tratamendurako erabilitako sistema: automatizatua, udal kudeaketaren aplikazioa.

-Datuen komunikazioa: Ez dago aurreikusia.

-Organo arduraduna: Odietako Udala.

-Zer zerbitzutan erabil daitezkeen sartzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta kontra egiteko eskubideak: Odietako Udala.

-Segurtasun maila: Oinarrizkoa.

11.-Interesen erregistroa

-Xede eta erabilera aurrekusiak: Udalbatzako kideen ondareko ondasunak eta bateraezintasunerako izan daitezkeen arrazoiak deklaratzeko erregistroa eta haien jardueren erregistroa eratzea. Udalbatzako kideen aseguruak.

-Datuen nondik eta nola biltzen diren: interesdunek berek ematen dituzte, elkarrizketetan eta Udaleko idazkariari egiaztagiriak ematean.

-Norbanako edo talde ukituak: Odietako Udaleko Udalbatzako kideak.

-Fitxategiaren oinarrizko egitura:

- Identifikazio datuak: izen-deiturak, telefonoa, helbidea, NANA, sinadura.
- Datu ekonomikoak, finantzarioak eta aseguruak.
- Inguruabar sozialen datuak.
- Ikasketa eta lanbide datuak.
- Enpleguaren xehetasunen gaineko datuak.
- Merkataritza arloko datuak.

-Tratamendurako erabilitako sistema: paperezko euskarrian.

-Datuen komunikazioa: zuzeneko bidezko interesa dutela frogatzen duten guztiei, eta Lurzoruari buruzko maiatzaren 28ko 8/2007 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarriaren eta etorkizuneko berte xedapen batzuen aplikazioaren ondorioz izan daitezkeen lagapenak.

-Organo arduraduna: Odietako Udaleko Idazkaritza.

-Zer zerbitzutan erabil daitezkeen sartzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta kontra egiteko eskubideak: Odietako Udaleko Idazkaritza.

-Segurtasun maila: Oinarrizkoa.

12.-Bikote egonkorren erregistroa

-Xede eta erabilera aurrekusiak: ezkondu gabeko bikote egonkorren erregistroaz arduratzea. Ziurtagiriak.

-Datuen nondik eta nola biltzen diren: interesdunek berek ematen dituzte, eskaera idatziz aurkeztuta erregistroan jasoak izatea eskatzen dutenean.

-Norbanako edo talde ukituak: ezkondu gabeko bikote egonkorak, Odietako Udalean erregistratuak eta helbideratuak.

-Fitxategiaren oinarrizko egitura:

- Identifikazio datuak: izen-deiturak, helbidea, NANA, sinadura.
- Datu ekonomikoak, finantzarioak eta aseguruena.
- Ezaugarri pertsonalen datuak.

-Tratamendurako erabilitako sistema: paperean, erregistro liburu batean.

-Datuen komunikazioa: epaileei eta epaitegiei.

-Organo arduraduna: Odietako Udala.

-Zer zerbitzutan erabil daitezkeen sartzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta kontra egiteko eskubideak: Odietako Udala.

-Segurtasun maila: Oinarrizkoa.

13.-Aparkatzeko txartelak

-Xede eta erabilera aurrekusiak: ezgaitasuna duten pertsonen aparkatzeko txartelak emateko kudeaketa.

-Datuak nondik eta nola biltzen diren: interesdunek berek edo haien legezko ordezkariak ematen dituzte, eskabide baten bidez eta eskatzen den dokumentazioa hari erantsita eskaera egitean.

-Norbanako edo talde ukituak: baliaezintasun iraunkorra duten gidariak eta haien zaintzaileak edo haiekin bizi diren ahaideak.

-Fitxategiaren oinarrizko egitura:

- Identifikazio datuak: izen-deiturak, helbidea, NANA, sinadura, irudia.
- Ezaugarri pertsonalen datuak.
- Osasun arloko datuak.

-Tratamendurako erabilitako sistema: paperezko euskarrian.

-Datuen komunikazioa: Ez dago aurreikusia.

-Organo arduraduna: Odietako Udala.

-Zer zerbitzutan erabil daitezkeen sartzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta kontra egiteko eskubideak: Odietako Udala.

-Segurtasun maila: handia.